

Txindurri Dantza eta Txistu Taldeak 25 urte bete ditu aurten. Taldea sortu zenetik, mende laurdenaz gain hainbat gauza aldatu dira: dantzari eta txistulari kopurua, entsaiatzeko tokia, dantzak... eta herriko jende askok parte hartu du modu batean

edo bestean. Nagusien taldearekin eta Miren Bego Idigoras txistulari ohiarekin elkarrizketa izan genuen. Txindurri, taldearen inguruan jendeak eza gutzen ez dituen gauzen berri eman ziguten

Nola edo zergaitik sortu zen Txindurri taldea?

Beste talde batzuen jarraipen bezala sortu zen, eta guraso batzuen inketudearen ondorioz. Lehendik ere, Ikastolako gurasoek talde bat egina zuten baina Euskal Jaia ospatu zenean aukeratu behar zen: Ikastolako taldea bezala jarraitzea edo independente izatea, eta independente izatea aukeratu genuen. Hasierako ardura-dunak Ikastolako irakasle eta guraso talde bat, Kontxi Zuazua, Arantza Castillo, Modesto Saez de Zaitegi, Txomin Ruiz, ni... izan ginen.

Nola erabaki zen taldearen izena?

Izena jartzerako orduan pentsatzen hasi ginen. Guztioz ezagutzen genuen er-muko zerbaiten izena ipin-tzea erabaki genuen, auzo batena edo halako zeozer. Azkenean, Txindurri fami-liako bi kidek, Maria eta bere aita, dantzari ezagunak zire-la konturatu ginen eta izen hori aukeratu zen.

-Eta nork egin zuen insigniaren diseñua?

Insignia, Karlos Onandia-ren aitak diseñatu zuen, hau da, Marcelino Onandiak. Berak ez zuen dantza egiten baina inprenta zeukanez lo-gotipoa sortu zuen.

Zeintzuk izan ziren 1975ko dan-tza monitorea?

Deban monitorea zen



Txindurri taldea: 25 urte dantzan

Txomin Ruiz Ermura etorri zen eta bera taldeko mutile-taz arduratzen zen. Nik nes-kei erakusten nien dantza egiten eta neri nire aitak, Joseba Idigorasek, erakutzi zidan.

Hainbeste urtetan zehar beti leku berean entsaiatu duzue?

Ez, hasieran sakristia azpi-ko geletan entsaiatzen zen. Hortik, gaur egun Gutierrez dagoen lokalera joan ginen. Aita batek, Monroetik barra berde batzuk ekarri zituen eta dantzatzaren ari ginenen, barra horietan oratzen gi-nen. Bertan denbora luzean

egon ginen eta handik Teresa Murgara jo behar izan genuen, baina laister bi-dali gintuzten bertan beste iharduera batzuk egitea nahi zutelako. Momentu horretan arazoak egon ziren eta Txominek taldea utzi zuen, Gure Ametza Taldeari jaiot-tza emanez. Gu Santiago Apostol eskolara igo ginen, Teodoro Zuazuara, eta duela urte batzuk Anaitasuna Ikastolan finkatu gara.

Euskal Herriko leku askotan dantzatu duzue...

Bai, Euskal Herrian Euskal Jaia daukaten ia herri guztie-

tara egon gara, baina Euskal Herrikan kanpo ere irten ga-ra: Allarizera (Galizia), Andujar, Bailen eta Mejiara (Jaen) eta Vilanova i la Gel-trura (Katalunia).

Zenbat dantzarik eta txistularik osatzen du Txindurri taldea?

Gaur egun 164 ume dau-de, 14 taldetan banatuta, eta gero nagusien taldekoak gaude. Bestalde, 8 txistulari daude, 2 taldetan banatuta eta 6 txistulari nagusi.

Niretzat talde honek dau-kan gauzarik garrantzitsue-na dantzari nagusiak dira. Beste taldetan edo herritan 14 urte inguru betetzen dire-nean, jendeak dantzatzeari lagatzen dio, umeen gauzak balira bezala ikusten dutela-ko dantza egitea.

komunitateak
asegururak
San Pelayo
aholkularitza
fiskal eta juridikoa

San Pelayo 6-A (Eroski gainean) - 46 P.K. - Ermua

PATXI TABERNA

Gau eta egun

Alde zaharreko betiko taberna





“Hasieran elizapeko geletan egon ginen”

Ermuko ume askori dantzan irakatzeko Gurutzne Badiolak, hainbat urtetan Txindurriko monitorea izan zelako. Duela 10 urte laga zuen arren, aldaketa handiak igartzen ditu taldean.

-Nola sartu zinen Txindurrin?

Garai hartan nire lagun bat Juntan zegoen eta ni 1976an edo 1978an hasi nintzen eta 90 bitartean monitorea bezala egon nintzen. Orain 28 urte daukatenei klaseak eman nizkien, atera kontu.

-Zer lekuetan eman dituzu klaseak?

Hasieran elizapeko geletan egon ginen, baina laister, renaulten aurrean zegoen lokal batetara joan eta denbora luzean egon ginen. Gero, ikastolara igo ginen.

-Aldaketarik igarri duzu taldean?

Bai, asko, eboluzioa egon da. Lehen gurasoak eta umeak ziren, orain beste jatorrizko bat igartzen da: nagusientzat taldea dago... Bilakaera normala egon da, txistularien aldetik baita ere, musika tresna gehiago jotzen dira eta abar.



“Lehen baino askoz jende gutxiago dago”

Asier Bouzo Txindurriko aurpegi ezagunenetarikoa bat da, hainbat urtetan dantza egin duelako, bere familiako hainbat kidek bezala. Ia bere bizitza osoa dantzatzeko egon da eta gaur egun, 30 urtekin, "jubilatzea" nahi du. Beste batzutan ere, uzteko zorian egon da "denbora askorik ez dudalako eta garai batzutan taldean jende nahiko zegoelako".

-Zenbat denbora daramazu dantza egiten?

26 urte, Txindurri sortu aurretik ere dantza egiten nuelako. Hasieran sakristian ematen genituen klaseak eta ni hasi nintzenerako Olatz eta Arantza nire arreba dantza egiten zuten. Alexek ere 24 urte inguru darama dantza egiten.

-Zein monitorea izan dituzu?

Ba oraintxe bertan Rikardo "Sope" eta Gaizka Areitioaurtena bakarrik gogoratzen ditut.

-Zer leku bisitatu dituzu dantzari bezala?

Euskal Herriko herri askotako euskal jaietan egon naiz eta hemendik kanpo, Allariz-en (Galizian) eta Vilanova i la Geltrú-n (Katalunian)

-Zer aldaketa igarri duzu taldean urte hauetan?

Nire ustez aldaketa asko egon dira: dantza eta jantzi gehiago dago, entsaioak maizago ditugu, lasaitasuna dago... baina hori bai, lehen baino askoz jende gutxiago dago.

“Batzutan, taldeak jarraitu dezan jarraitzen duzu”

Josu Cruz-ek 1980. urtean hasi zen txistua jotzen, 12 urte zituelarik. Gaur egun, 20 urte pasa eta gero bakarrik "tokatzen denean" jotzen du, "atzetik datozei lekua utzi behar zaielako". Josuk, gainera, Arantza Gorritxategi txistularia goraipatu nahi du, egin duen lanagatik eta egon den denboragatik meritu handia duelako.

-Zelan laburbilduko zenituzke txistulari bezala eman dituzun 20 urteak?


Ilusioarekin hasten zara, euskal kulturarekin identifikatzen zarelako eta oso urte onak pasatzen dituzu. Hasieran, asko ikasten duzu baina gero aspertu egiten zara. Ordu horretarako taldeak zure premia duela ikusten duzu eta ezinezkoa egiten zaizu lagatzea. Batzutan, taldeak jarraitu dezan jarraitzen duzu.

-Orain, beraz, "lagatze prozesuan" zaude...

Bai, alde batetik edadiaren problema dago. Hasten zarenean ez daukazu beharrik, gero lana, ikasketek, errelazioak... aukeratu behar duzunean, taldea da lagatzen dozun lehenengo gauza. Nik nahiko egin dudala uste dut eta orain euskal kulturaz beste era batera disfrutatzea nahi dut. Beste batzuk gogoz daude eta esperantza dago.


-Nolakoak izan dira dantzarietako zure harremanak?

Hasieran oso onak, jendea nire adinekoa zelako. Orain gazteagoak dira, "arazo generazionala" dago eta harremanak hotzitu egiten dira.



Dorleta Vidal

MUGA



San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

KIRIOLAK



LURPE

ERMUA

